

## HITZALDIA

'Los laberintos del cuerpo' • Bilbon, Bilbao Arte aretoan, 20:00etan

## «Gorputza berez ez da existitzen»

TRANS Sexual Express erakusketa ikus daiteke Bilbao Arte aretoan, eta gaur egungo 20 artistaren lanak bil-tzen ditu. Erakusketaz gainera, hitzaldiak ere antolatu dituzte, azken joera artistikoak gai berberen inguruko ekarpen teorikoekin lotzeko helburuarekin.

Lourdes Mendez antropologo eta EHuko irakasleak emango du gaur hitzaldia: *Los laberintos del cuerpo* (Gorputzaren labirintoak). Izen bereko liburua du.

### ■ Zer azalduko duzu hitzaldian?

Ordu erdi inguru iraungo du, eta gorputzaren eraketa kulturalaz hitz egiten hasiko

naiz, hau da, mendebaldeko gizartea nola hasi zen gorputza ezagutzen, gorputzean pentsatzen... Gorputzaren eta izpirituaren arteko dikotomiaz hitz egingo dut hasieran. Eta ondoren, garai hartatik hona eman den bilakera azalduko naiz; izan ere, egun badago gorputza segundo gutxitan transformatzeko aukera, edo hala saltzen digute behintzat: sexu aldaketa egin nahi baduzu, egin dezakezu, sudurra aldatu nahi baduzu ere alda dezakezu... Eta planteamendu horiek XX. mendeko zenbait artistak euren obretan nola islatzen dituzten aztertuko dugu,

batez ere emakumezko artisten lanak.

### ■ Gorputzaren bilakaera handia izan da Darwinen garaitik hona. Zer iritzi duzu horretaz?

Gorputza berez ez da existitzen; bakarrik existitzen da berari buruz modu batean pentsatzen dugulako, eta, horrenbestez, gorputzean pentsatzeko moduak aldatu egiten dira historian zehar. Eta gorputzean pentsatzeko moduak aldatzearekin batera, pertsonen identitateaz pentsatzeko moduak ere aldatu egiten dira.

I. Basterretxea  
DONOSTIA



OLALDE

Lourdes Mendez antropologo eta EHuko irakasleak emango du gaur hitzaldia.

## MUSIKA

## IRUN

► **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Amaia kultur zentroan, 20:00etan.

## ANTZERKIA

## BASAURI

► **Leoncio y Lena** obra antzeztuko du Basauriko Antzerki Eskolak Social antzokian, 18:00etan.

## BILBO

► **Bodas de sangre** Federico Garcia Lorcaen obra Arriaga antzokian, 20:00etan.

## LEIOA

► **Moliere-Dandin** obra antzeztuko du EHuko Antzerki Taldeak Unibertsitatean, 12:00etan.

## ZINEMA-BIDEOA

## BARAKALDO

► **El invitado de invierno** Alan Rickmanen filma Barakaldo antzokian, 20:00etan eta 22:30etan.

## BILBO

► **El prado de Bezhim** Serguei M. Einsteinen filma Ayala antzokian, 17:00etan. Bilboko Arte Eder Museoko Zinemateka.

## HITZALDIA

## BILBO

► **Las lanzas o la rendición de Breda** hitzaldia emango du Francisco Calvo Serrallerrek BBK Kultur Gelan (Elkano kalea, 20), 20:00etan. Velazquezen Maisulanak, IV. Mendeurrena.

## GASTEIZ

► **Los derechos de los animales** hitzaldia emango du Jesus Mosterin filosofoak Luis Ajuria aretoan, 19:30etan.

## LEIOA

► **Alzheimer: gaixotasuna eta horrek familian duen eragina** hitzaldia emango du Maria Diez Bizkaiko Alzheimer Gaixoen Familiartekoen Elkarteak, Artean, Eroski Hipermerkaturan, 18:00etan.

## TOLOSA

► **Garapenaren hazia** hitzaldia eta dokumental emanaldia Dantzaki taldearen eskutik, Kultur Etxean 20:00etan. Tolosaldeko Abiadura Handiko Trenaren aurkako astea.

## ERAKUSKETAK

## BILBO

► **Loreto Larrañaga eta James A. Kuiper** artisten eskulturak, Vanguardia galerian, otsailaren 2a arte.

► **Atzoko eta gaurko langintzak** erakusketa, Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa, otsailaren 7a arte.

► **Trans sexual express** erakusketa Bilbao Arte aretoan (Urazurrua, 32), otsailaren 6a arte.

► **Fotografies.** Tony Catanyren argazkiak Bilboko Foru Artxiboko erakustaretoan (Maria Diaz de Haro), urtarrilaren 15a arte.

► **Melquiades Alvarez-en** pinturak Amaste arte aretoan, urtarrilaren 15a bitartean.

► **Maroko.** Aurelio Gomezen argazkiak Espacio de los Mundos aretoan (Simon Bolivar, 17), otsailaren 9a arte.

► **Paisajes vitales.** M<sup>a</sup> Angel Manovell-en argazkiak Bilbaofot

2001 galerian, urtarrilaren 16a arte.

► **Robert Rauschenberg** estatubatuarren lanak Guggenheim museoan, martxoaren 7a bitartean.

► **Aurelio Arteta, Ikuspegi orokorra.** Arte Eder Museoa, martxoaren 15a arte.

## DONOSTIA

► **Euzkadiko Gudontzidia.** Untzi Museoa, otsailaren 28a arte.

► **Tierra Mágica.** Argazki erakusketa, Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteak, urtarrilaren 27a arte.

► **Juan Muñozen Mobilario** Dieciseis galerian, otsailaren 7a arte.

► **De azufre, de terciopelo** Federico Alonsoren erakusketa Egia-kultur etxean, urtarrilaren 29a arte.

► **Diego Quiroga Losadaren** argazkiak Koldo Mitxelena kultur-gunean, urtarrilaren 21a arte.

► **Lascaux-Ekain: Etorkizuneko faksimileak.** Aranzadi Zientzia Elkartearen Zorroaga-ko egoitza, urtarrilaren bukaera arte.

► **Transgeneric@s.** Koldo Mitxelena kultur-gunean, otsailaren 6a arte.

## ZARAUTZ

► **J.M. Ribas i Prousen argazkiak** Photomuseum Argazki Euskal Museoa, urtarrilaren 31 arte.

► **Ramon Serrasen argazkiak** Olerti Etxean, otsailaren 28a arte.

## IKASTAROAK

## DONOSTIA

► **Esenografia tailerra.** Donostiako Arkitekturako Goi Eskola

Teknikoaren 410. gelan, apirilaren 20a arte. Telefonoa: 94-464 77 00 (2065 luzapena) / 943- 44 85 00 (7100 luzapena).

► **Ingurugiro, masaje, geriatría eta autoestima ikastaroak** antolatu ditu Gurutze Gorriak hila-bete hauetarako. Telefono zenbakia: 943 - 32 10 55 / 943 - 32 09 89.

## GASTEIZ

► **Pertsonen arteko harremanak hobetzeko giltzak.** Arriaga gizarte etxean izango da ikastaroa, Alfonso Ayala psikologoa-ren eskutik, urtarrilaren 19tik martxoaren 23ra bitartean, asteartetan. Izena emateko epea bihar amaituko da. Telefonoa: 945-16 17 70.

## GETXO

► **Escritura creativa.** Urgul kaleko Kultur Aretoa izango da, gaurtik aurrera astelehen eta asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara. Telefonoa: 94-491 02 58 (Anabel edo Roberto).

## LEHIAKETAK

## ARRASATE

► **Ipuin, poesia, komiki, Leintz eta Ugaren bailaretako euskararen testigantzak, irati erreportaia eta bertso paper lehiaketak.** Deba-Garaiko biztanleek baino ezin dute parte hartu. Euskaraz idatzitako obra orijinalak eta inoiz argitaratu edo saritu gabeak bakarrik aurkeztu daitezke. Idazlanak, hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde bakar batetik makinan idatzita aurkeztu behar dira. Lanak helbide honetara bidaliko dira: AED Elkarte, 'Arrasate 98' lehiaketak, Pablo Uranga kalea, 4 behe, Arrasate (Gipuzkoa). Otsailaren 26a baino lehen.

## BILBO

► **Ihauterietarako kartel lehiaketa.** Gaia: 1999ko Bilboko Aratustea. Aurkezteko epea: Barrainkuako kultur etxean, urtarrilaren 29a arte. Telefonoa: 94 - 424 29 84.

## GETXO

► **Getxoko Nazioarteko Jazzaldiko Talde Lehiaketa.** Jazzaldiaren lehen hiru egunetan egingo da lehiaketa —uztaileko lehen hiru egunetan—, eta Europako edozein talderi dago zuzenduta, parte hartzen dutenen gehieneko adina 30 urtekoa izanik. Irabazleak 500.000 pezetako saria jasoko du eta, gainera, disko bat grabatzeko aukera izango du. Izena emateko epea 1999ko otsailaren 13a arte izango da zabalik.

## HONDARRIBIA

► **Ihauterietarako Kartel Lehiaketa.** Udalak antolatu du eta nahi duten guztiek har dezakete parte. Derrigorrezkoa da 'Hondarribia-Ihauterietarako 99' leloa azaltzea. Zuloaga etxea udal liburutegian aurkeztu behar dira lanak, urtarrilaren 21 eta 22an.

## PORTUGALETE

► **XIII. Komiki Lehiaketa.** Udaleko Kultura sailak egin du deialdia. Edonork hartu dezake parte. Gaia eta teknika libreak izango dira, baina komikiko pertsonaiak orijinalak eta inon argitaratu gabeak. Udalean bertan utzi ahalko dira, edota honako helbidera bidali: 'Santa Klara kultur etxea, Casilda Iturrizar z/g., 48920 Portugalete, Bizkaia'. Urtarrilaren 15ean amaituko da jasotzeko epea.